


Tokiko erakundeek
giza eskubideen defendatzaileak

Babesteko duten **Betebeharra**



Herri Babesarea

Giza eskubideen defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea
Red vasca municipal de protección
a defensores/as de derechos humanos

Tokiko erakundeek
giza eskubideen defendatzaileak

Babesteko duten **Betebeharra**



**Brigadas
Internacionales
de Paz**

Mundubat



Agirigileak: Isabel Lima eta María Gutiérrez

Agiriaren koordinazioa: Mónica Alonso San Millán

Argitalpen hau proiektu honetan dago kokatuta: Giza eskubideak defendatzen dituzten lurraldeak. Eragin globalak dauzkaten toki-ekintzak. Proiektuaren finantzaketa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala.

Argazkiak: Carlos Henao, Francesca Volpi, Equipe Media

Diseinua eta maketazioa: porENDE estudio gráfico



“Indarkeria hau ez da ausazkoa. Argi eta garbi daukat gertakari hauek egintza isolatuak ez direla. Ikararik eta miseriarik gabeko mundu askera iristeko asmoz Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalaren ideala ezartzen saiatzen direnen aurkako eraso antolatuak dira”

Michel Forst

*giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko
Nazio Batuetako errelatore berezia*



“Ez ditut aldatu ezin ditudan gauzak onartzen, onartu ezin ditudan gauzak aldatzen ari naiz”

Ángela Davis

ekintzaile politikoa



1

Sarrera

Liza eskubideak (GGEE) eskubide besterenezinak dira, eta pertsona guztiek eskubide horiek edukitzeko eskubide berbera dute, gizakiak izatearren baino ez. Eskubide unibertsalak eta oinarrizkoak dira, funtsezkoak duintasunari, biziraupenari eta giza garapenari begira. Banaezinak dira, eta elkarren arteko lotune estua dute.

Giza eskubideak mundu zabalean betetzen direla ziurtatzea erronka handia da. Besteak beste, nazioarteak, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) eta eskualdeko erakundeek, Estatu Amerikarren Erakundeak (OEA), esaterako, GGEEak sustatzen dituzte zenbait ekimen, tresna eta instituzioren bidez.

Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsala (GEAU), oinarrizko eskubideen arloko legezko arkitekturaren funtsezko zutabe moduan, Nazio Batuetako Batzar Nagusiak aldarrikatu zuen Parisen 1948an, Bigarren Mundu Gerraren eragin ikaragarriaren ostean. Bere 30 artikulua erreferentziako esparrua dira, eta, herrialde guztietan, horren arabera egokitu beharko lirateke legeak nahiz ekintza politikoa.

Edonola ere, nahiz eta estatuak giza eskubideak errespetatu, babestu eta bete egin behar dituzten, munduko leku askotan egunero-egunero urratzen dituzte. Kale eta etxeetan urratzen dira, espetxeetan, errefuxiatuen eremuetan, lantegietan, eskoletan eta Interneten bertan ere bai¹. Oinarrizko arau horiek betetzen ez direnez, giza eskubideen defendatzaileek (GED) banan-banan edo taldean lan egiten dute, GEAU eta adierazpen hori garatzeko zenbait arautan zehaztutako eskubideak egia bihurtzeko. Horretarako, edozein giza eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial edo kultural jorratzen dute.

Giza eskubideen emakume defendatzailea alaba desagertuagatik justizia bila dabilen ama da. Doako eta kalitateko hezkuntza publiko laikoa eskaintzen duen maistra. Soldata hobea eskatzen duen makilako emakume langilea. LGBTBien eskubideen aldeko emakume ekintzailea.

¹ Nazioarteko Amnistia: Zer dira giza eskubideak?

Bere lurraldea defendatzen duen emakume lider indigena edo nekazaria. Abortua despenalizatzeko mobilizatzen den neska gaztea. Poliziaren eta krimen antolatuaeren arteko konplizitateak agerian gazten dituen emakume kazetaria².

Mundu zabaleko emakume eta gizonek euren bizia jartzen dute arriskuan giza eskubideak defendatzeagatik. Milaka lagunek aurre egiten diete diktadurei, erregimen zapaltzaileei, gobernu usteleki, erauzketako nahiz meataritzako enpresen ekintza bortitzei, erakunde kriminalei edo talde armatuak, eta haien bizitzetarako kostua oso handia da. Egiaztatu egin da konpromiso hori funtsezkoa dela, bidegabekeria sozialak agerian jartzeko, zigorgabetasunari aurka egiteko eta zenbait herrialdetako prozesu demokratikoak bultzatzeko.

Agintariei (eta elite politiko, militar eta ekonomiko boteretsuei) GGEE-en arloan dituzten betebeharrak gogorazten dizkietenean, pertsona horiek arrisku larrian jartzen dira. 1998an Nazio Batuetako Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Adierazpena onartu zuenetik, Nazioarteko Amnistiak zenbatetsi egin du 3.500 GED hil dituztela eskubideak defendatzeagatik³. Iaz baino ez, 27 herrialdetan 321 defendatzaile hil zituzten euren lanagatik, eta inoizko kopuru handiena izan da, *Front Line Defenders* erakundeko datuen arabera⁴. Eraildako ekintzaile guztien %77k lurrerako, ingurumenerako edo herri indigenen eskubideak defendatzen zituzten; eta, sarritan, estatuek babestutako erauzketa-industriari eta proiektutzarren aurkako demandan testuinguruan.

Front Line Defenders erakundeak 2018ko⁵ txostenean salatzen du defendatzaileen hilketak ez zirela egitate isolatuak izan, aldez aurretik zirikatze judizialak, mehatxuak eta eraso fisikoak egon zirelako. Eraildakoen %49k, gutxienez, banakako heriotza-mehatxua jaso zuten aldez aurretik. Kasu gehienetan, defendatzaileek edo defendatzaile-taldeek ez zuten estatuko agintaritzen beharrezko babesik eta laguntzarik jaso, mehatxuak jaso zituztenetik harik eta hil zituzten arte.

2 Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarrak giza eskubideen emakume defendatzaileei buruz egindako definizioa.

3 2017-2018ko Urteko Txostenean (159 herrialde eta lurralde aztertu ziren bertan), Nazioarteko Amnistiak honako hauxe leporatu zien mundu zabaleko gobernuak: «giza eskubideen gaietan inolako lotsarik gabe atzera egitea, disidenteen aurkako zapalkuntza-kanpainak egitea eta talde baztertuen jazarpen handiagoea bermatzen duten neurriak ezartzea».

4 2017. urtean, 300 ekintzaile hil zituzten, hau da, 2018. urtean baino 27 ekintzaile gutxiago.

5 Hementxe dago ikusgai: https://www.frontlinedefenders.org/sites/default/files/spanish_annual_report.pdf

Sarritan, Nazioarteko Amnistiaren txosten batean adierazten denez⁶, mundu zabaleko agintariek lege penal, zibil eta administratiboak erabiltzen dituzte larregikeriaz, defendatzaileen lana bertan behera uzteko, mugatzeko edo eragozteko ere bai. Batzuetan, orokorregiak diren edo zehaztasunik gabe idatzi diren legeen arabera auziperatzen dituzte defendatzaileak, baina, batez ere, terrorismoaren, narkotrafikoaren eta estremismoaren aurkako edo segurtasun nazionalaren aldeko legeen arabera. Jarduketa judicial horiek GGEE-en defentsa eta honako honexen aldeko jardueren garapena oztokatzen dituzte: berdintasuna, justizia, ingurumenaren zein lurraldearen defentsa, garapen jasangarria edo bakea.

Giza talde hori babestea eta haien lanean laguntzea estatuetakoa giza eskubideen estrategien, Nazio Batuen zeregin osoaren eta gizarte zibilaren jardueren funtsezko osagaia izan beharko litzateke. **GGEE-en nazioarteko zuzenbidean (arlo horretako nazioarteko itunak ditu osagai), arauzko esparru hau berrestean estatuak errespetatu eta modu loteslean euren gain hartzen dituzten betebeharrak eta eginbeharrak zein diren zehazten da.** Hain zuzen ere, GGEEak errespetatzeko, babesteko eta betetzeko betebeharrak dituzte estatuak. Errespetatzeko betebeharra dutela esatean, adierazi egiten da estatuak eurek ezin dutela eskubideon erabilera eragotzi edo mugatu. Babesteko betebeharra dutenez, estatuak gizabanakoen eta giza taldeen giza eskubideen aurkako urraketak eragotzi behar dituzte. Betetzeko betebeharra dutenez, estatuak behar besteko neurri onak ezarri behar dituzte, oinarrizko GGEE-en erabilera sustatzeko. GGEE-en nazioarteko itunak berrestean, gobernuek behar besteko konpromisoa hartzen dute, itunen ondorioz sortutako betebeharrak eta eginbeharrekin bateragarriak diren neurriak eta barruko legeak ezartzeko.

Hori dela eta, Giza Eskubideak Defendatzeko Eskubidea babestea estatuak nazioarteko betebeharra da, eta legezko esparrua dauka Europa eta Espainia mailan.

⁶ Hementxe dago ikusgai: <https://www.amnesty.org/download/Documents/ACT3060112017S-PANISH.PDF>



2

Nazioarteko eta nazio-mailako arauzko esparrua: tokiko erakundeek giza eskubideen defendatzaileak babesteko duten betebeharra

Giza eskubideen defendatzaileak babesteko betebeharra Giza Eskubideei buruzko 1948ko Adierazpen Unibertsaletik sortzen da, baita Espainiak giza eskubideei buruz sinatu eta berretsi dituen nazioarteko gainerako itunetatik ere; Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko 1966ko Nazioarteko Itunetik, besteak beste.

Espainiako estatuak 1977ko apirilaren 20an berretsitako Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, estatuak behar besteko konpromisoa hartzen dute, haien lurraldean dauden eta haien jurisdikzioari men egiten dioten pertsona guztiei itun horretan aitortutako eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko, honako honexengatik inolako bereizkeriarik egin gabe: etnia, sexua, hizkuntza, erlijioa edo beste era batekoa, jatorri nazional edo soziala, egoera ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza sozial. Era berean, estatu bakoitzak neurri egoki guztiak ezarri beharko ditu, aitortutako eskubideen edozein urraketa prebenitzeko, zigortzeko, ikertzeko eta konpontzeko.

Giza eskubideak errespetatzeko, babesteko eta betetzeko betebeharra giza eskubideen defendatzaileen eskubideetan ere ezartzen da. Hori dela eta, estatuak ezin izango dute giza eskubideen defendatzaileen eskubideak urratzen dituen inolako egintzarik egin, eta, horrez gain, giza talde hori babesteko behar besteko tresnak ere garatu beharko dituzte, baita ingurune seguru eta egokia ezartzeko moduko neurri erreaktibo eta prebentiboak ere, talde horrek bere zeregina askatasunez eta errepresalientzein beste kalte batzuen inguruko ikararik gabe garatzeko aukera eduki dezan. Betebehar hori estatu osora hedatuko da eta, horren ondorioz, botere publiko guztietara (betearazlea, legegilea eta judiziala), baita estatu alderdiaren erantzukizuna konprometitu dezaketen gainerako agintari publiko edo gobernu-agintarikoetara ere, haien maila edonolakoa dela ere (nazionala, eskualdekoa edo tokikoa).

Nazioarteko esparruan, Nazio Batuek giza eskubideen defendatzaileen zeregina eta haien defentsa-lana aitortzen dituzte bi neurri zehatzen bidez, batez ere: batetik, Nazio Batuetako Batzar Nagusiak 1999ko martxoaren 9an emandako 53/144 Ebazpena. Horren bidez, gizabanakoek, taldeek eta instituzioek era unibertsalean aitortutako⁷ oinarritzko askatasun eta giza eskubideak sustatzeko eta babesteko dituzten eskubide eta betebeharrari buruzko adierazpena onartzen da (Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Adierazpena esaten zaio, oro har). Bestetik, giza eskubideen defendatzaileen gaiaren inguruko prozedura bereziaren ezarpena, adierazpena ezarri egiten dela zaintzeko eta bermatzeko.

Aitorpenak berez indar juridiko loteslerik ez daukan arren, arlo juridikoan lotesleak diren nazioarteko beste tresna batzuetan, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunean, esaterako, giza eskubideei buruz zehaztutako arauetan oinarritzen diren zenbait printzipio eta eskubide agertzen dira.

Estatuak eta giza eskubideen defendatzaileak ez ezik, pertsona guztiak ere badira adierazpenaren helburu. Hartara, aitortu egiten da pertsona guztiak erantzukizuna dutela erkidegoaren errespetuan, giza eskubideen sustapenean, demokraziaren nahiz bere instituzioen babesean eta gainerakoek giza eskubideak urratzeko debekuan.

Ez du berez eskubide berririk zehatzen, baina lehendik zeudenak egituratzen ditu, defendatzaileek gainditu beharreko egoera praktikoen arabera errazago garatu daitezten.

Zehatz-mehatz, honako hauexek nabarmendu daitezke, estatuen betebeharrak eta eginbeharrei dagokienez:

Giza eskubide guztiak babestea, sustatzea eta gauzatzea.

- Pertsona guztiak euren eskubideak zein askatasunak bete-betean erabiltzen dituztela bermatzea eta behar besteko neurri guztiak ezartzea, eskubideak eta askatasunak benetan ezartzen direla ziurtatzeko.
- Giza eskubideen urraketak salatzen baliabide eraginkorrak eskaintzea eta giza eskubideen ustezko urraketaren inguruko mekanismo azkar bezain inpartzialak egituratzea.

⁷ Hementxe dago ikusgai: https://www.ohchr.org/Documents/Issues/Defenders/Declaration/declaration_sp.pdf

- Giza eskubideen irakaskuntza eta ulerkuntza publikoa bultzatzea.
- Giza eskubideak sustatu eta babesten dituzten instituzio nazional independenteen sorrera eta garapena bermatzea eta babestea.
- Behar besteko neurri guztien egituraketa sustatzea, pertsona guztiak honako honexen aurrean babestuta daudela bermatzeko: era guztietako indarkeria, mehatxua, errepresalia, bereizkeria txarra, presioa edo giza eskubideen zilegizko erabileraren ondorioz sortutako beste edozein ekintza arbitrario.

Bigarrenez, lehen aitatu bezala, prozedura berezia sortzen da 2000/61 Ebazpenaren bidez giza eskubideen defendatzaileentzako figura berezia izendatzean. Izan ere, bere agintaldia etengabe berritu da gaur egunera arte⁸.

Figura horrek, errelatore bereziak, harremana dauka defendatzaileekin, eta, aldian-aldian, harremanetan jartzen da parlamentu nazionalekin, eskualdeko gobernuarteko erakundeekin eta giza talde horren egoera hobetzeko konpromisoa hartu duten estatu-taldeekin. Era berean, prozesu horren bitartez, badago mundu zabaleko defendatzaileentzat funtsezkoak diren gaiak zehazterik (besteak beste, honako hauexek nabarmentzen dira: demokratizazio-prozesuak, tokiko agintarien erantzukizunak eta segurtasunari buruzko edo terrorismoaren aurkako legeriaren eragina) eta haiei neurri berezien bidez laguntzerik.

Adierazpenean bertan defendatzaileei buruz egindako definizioak zailtasunak eta zalantzak sortzen zituenez, 29. Informazio Liburuxka⁹ argitaratu zen: Giza Eskubideen Defendatzaileak: Giza Eskubideak Defendatzeko Eskubidearen Babesa. Izan ere, oso lagungarria izan zen GGEE-en defendatzaileak nortzuk diren eta Errelatoretzeta Bereziak haien babesean zer zeregin betetzen duen zehatzago azaltzeko orduan. Modu berean, Batzar Nagusiak defendatzaileei buruzko zenbait ebazpen eman ditu, baita zenbait agiri instrumentalago ere; esate baterako, Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Adierazpenaren urraketen inguruko salaketak errelatore bereziari aurkezteko gidalerroak¹⁰.

⁸ <https://www.ohchr.org/SP/Issues/SRHRDefenders/Pages/Mandate.aspx>

⁹ <https://www.ohchr.org/SP/Issues/SRHRDefenders/Pages/Mandate.aspx>

¹⁰ Informazio gehiago: <https://www.ohchr.org/SP/Issues/SRHRDefenders/Pages/Complaints.aspx>

Nazio Batuen esparruan ere, ezinbestekoa da Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena¹¹. Bertan, hain zuzen ere, garapenerako eskubidea giza eskubide besterenezina dela azaltzen da. Horren arabera, pertsona guztiek eta herri guztiek garapen ekonomiko, sozial, kultural eta politikoa parte hartzeko eskubidea dute, eta, bertan, oinarritzko askatasun eta giza eskubide guztiak gauzatu daitezke bete-betean. Horrez gain, garapen hori sustatzeko eta garapen horretaz gozatzeko eskubidea ere badute.

Tresna horren ondorioz, betebeharrak inposatzen zaizkie estatuei, bertako 4. eta 5. xedapenetan, hurrenez hurren, adierazi egiten delako estatuen betebeharra dela banan-banan eta taldean behar besteko neurriak ezartzea, garapenerako eskubidearen erabateko erabilerara egokitzen diren politikak diseinatzeko eta abian jartzeko eta horrelako egoeren eragin zuzenpean dauden herrien zein pertsonen GGEE-en urraketa sistematikoak desagerrarazteko.

Era berean, NBEk beste arau batzuk onartu ditu, eta, haien helburu zehatza defendatzaileak babestea ez bada ere, badute garrantzirik haien zereginari begira; Pariseko Printzipioak¹², esate baterako. Bertan, hain zuzen ere, GGEE-en arloko instituzio nazionalen arauketarako eta jardunerako oinarriak zehazten dira, eta, haien barruan, defendatzaileak babesteko bulegoak¹³ ezartzen dira.

Sektore zehatzetan ere aitortu da estatuek GGEE-en defendatzaileekin duten betebeharra. Horrela, bada, 2011ko martxoan, Nazio Batuek enpresen eta giza eskubideen inguruko printzipio gidariak onartu zituzten¹⁴, eta berretsi egiten dute estatuen betebeharra dela pertsonak giza eskubideen aurkako eraginetatik babestea, enpresekin zerikusia dutenak kontuan hartuta. Era berean, printzipio gidari horien arabera, estatuen erantzukizun zuzena da giza eskubideen defendatzaileen zilegizko jardueri inolako oztoporik jartzen ez zaiela bermatzea. Agintariek, beraz, giza eskubideen defendatzaileak babestu behar dituzte haien eskubideen urraketetatik, eragile egilea edozein dela ere.

Printzipio gidari horiek (NBEren aginduaren arabera) eta gai beari buruzko beste itun batzuk erreferentziatzen hartuta, 2014an, 26/9 Ebazpenaren bitartez, NBEko Giza Eskubideen Kontseiluak Gobernuarteko Lantaldea sortu eta “arlotan loteslea den tresna” garatzeko agindu zion, “Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen esparruan (GENZ), enpresa

¹¹ Hementxe dago ikusgai: <https://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RightToDevelopment.aspx>

¹² <http://hrlibrary.umn.edu/instreet/Sparisprinciples.pdf>

¹³ <https://www.nhri.net/>

¹⁴ https://www.ohchr.org/documents/publications/guidingprinciplesbusinessshr_sp.pdf

transnazionalen eta beste enpresa batzuen jarduerak arautzeko (A/HCR/RES/26/9)". Orduz geroztik, Genevan, herrialdeak eta erakunde zibilak lanean ari dira, itun hori adosteko, pertsonak enpresa-jarduerekin lotuta GGEE-en arloan egiten diren larregikerietatik babesteko, zigorgabetasuna desagerrarazteko eta biktimek justiziara jotzeko aukera edukitzeko.

Tokiko erakundeek giza eskubideen sustapenean eta babesean duten zereginari dagokionez, NBEko Giza Eskubideen Kontseiluak A/HRC/30/49 Txostena onartu zuen 2015ean, eta giza eskubideak sustatzeko eta babesteko orduan tokiko gobernuak funtsezko eragileak direla aitortzeko prozesuari eman zion hasiera. Txosten horretan eta osteko A/HRC/RES/33/8 Ebazpenean (2016), aitortu egiten da tokiko gobernuak funtsezko eragileak dela giza eskubideak sustatzeko eta babesteko orduan eta estatuek oso kontuan hartu behar dutela, giza eskubideen arloko estrategia nazionalak zehazten dituztenean eta, horren ondorioz, giza eskubideen defendatzaileak babestean ere bai.

Eskualde-mailan, giza eskubideen defendatzaileen inguruko tresnak ere ezarri dira. Hartara, eremu afrikarrean, esaterako, Afrikako Giza Eskubide eta Herrien Batzordeak arlo horretako zenbait adierazpen eta ekintza-plan egin ditu, eta, besteak beste, honako hauexek aipatu daitezke: Kigaliko Adierazpena, defendatzaileen zeregina eta haien babesteko premia nabarmentzen dituena; Afrikako Defendatzaileen Babesari buruzko Ebazpena, Afrikako GEDi buruzko Errelatoretzaren Berezia sortzen duena; eta Kampalako Ekintza Plana, defendatzaileen babesean aurrerakuntza handiak egiten dituena, babeserako mekanismo nazionalak sortzean eta eskualdeko mekanismoak sendotzean eta indartzean.

Eremu amerikarrean, Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordeak¹⁵ (GEAB) behin baino gehiagotan eskatu die estatuei behar besteko neurriak hartu ditzatela, giza eskubideen defendatzaileen osotasun fisikoa babesteko eta haien zereginaren garapenerako baldintzak sustatzeko. Alde horretatik, Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Ebazpena berretsi eta GEDen egoerari buruzko prozedura berezia sortu zen.

Asian, Asiako Giza Eskubideen Gutuna eta Asiako Giza Eskubideen Batzordea daude, eta, 2009an, Asiako Hego Ekialdeko Nazioen Elkarteak Giza Eskubideen Gobernuarteko Batzordea sortu zuen. Dena dela, oro har, Asia beste eskualde batzuen atzetik dabil GGEE-en arloko eskualdeko mekanismoen garapenera begira eta, horren ondorioz, defendatzaileak babesteko mekanismoei begira ere bai. Hori dela eta, giza talde horren babesa gobernuen eta GGEE-etako instituzio nazionalen ardurapean baino

¹⁵ Ikus <http://www.oas.org/es/cidh/defensores/default.asp>

ez dagoenez, ez dira bultzatzen beste eskualde batzuetan nazioarteko erakundeek arlo horretan jokatzen duten bezala.

Europako testuinguruan, arlo honi buruzko xedapenak daude, eta zenbait instituzioi eman dituzte: Europako Kontseilua, Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundea eta Europar Batasuna, besteak beste.

Europako Kontseiluak Giza Eskubideen aldeko Komisarioa jarri zuen, estatu kideetan GGEE-en inguruko kontzientzia zein errespetua sustatzeko eta, horrez gain, giza eskubideen defendatzaileen babesari hobetzen eta haien jarduerak bultzatzen laguntzeko. Komisarioaren agintaldia indartu egin da Ministroen Lantaldeak Europako Kontseiluak giza taldearen babesari hobetzeko eta haren jarduerak sustatzeko garatutako ekintzari buruz egin duen Adierazpenaren bidez, berretsi egin duelako Europako Kontseiluko estatu kideek konpromiso sendoa dutela defendatzaileei eta haien lanei benetako babesari eskaintzeko, baina, batez ere, egoera arrisksuetan daudenean. Era berean, estatuak behar besteko konpromisoa hartzen dute, giza taldearekin eta bere zereginarekin lotutako gaiei arreta berezia eskaintzeko.

Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundeak (ESLA) apurka-apurka berretsi du giza eskubideen defendatzaileek garatutako lanarekin daukan konpromisoa. Hain zuzen ere, Institutuzio Demokratikoen eta Giza Eskubideen Bulegoak 2007an sortu zuen GGEE-etako instituzio nazional eta defendatzaileentzako puntu fokala, eta honako hauxe da bere zeregina: haien egoera hurbiletik behatzea, gai kezkarriak zein diren zehaztea eta haien interesak sustatzea eta babestea. 2016an, Institutuzio Demokratikoen eta Giza Eskubideen Bulegoak Giza Eskubideen Defendatzaileen Babesari buruzko Gidalerroak argitaratu zituen¹⁶. Jarraibide horietan, defendatzaileen babesaren nazioarteko dimentsioa aitortzeko printzipioa zehazten da, eta, horren arabera, estatuak aitortu egin behar dute defendatzaileek babesari behar dutela barruan, euren lurraldean bertan, nahiz kanpoan, beste estatu batzuetan. Era berean, bertan agintariei eskatzen zaienez, barruko esparru juridiko, administratibo eta instituzionalek inguru seguru bezain egokia ezartzen eta sendotzen lagundu behar dute, GGEE-en defendatzaileak babestuta, lagunduta eta gaituta egon daitezzen euren zilegizko jarduerak garatzen dituztenean.

Bestetik, Europar Batasuneko Itunaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, EBk nazioartean garatzen duen ekintza bere sorrera eta garapena inspiratu dituzten eta munduaren gaineratikoa sustatu nahi dituen printzipioetan oinarrituta egongo da: demokrazia, zuzenbide-estatuak, GGEE-en eta oinarritzko askatasunen unibertsaltasuna eta banaezintasuna,

¹⁶ Hementxe dago ikusgai: <https://www.osce.org/es/odihr/230591?download=true>

giza duintasunaren errespetua, berdintasunaren nahiz elkartasunaren printzipioak eta Nazio Batuen Gutuneko eta Nazioarteko Zuzenbideko gainerako printzipioak.

Printzipio horien esparruan, Europako instituzioek Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Gidalerroak idatzi zituzten 2008an¹⁷. Arautegi horretan, zehaztu egiten da EBk zer jarduketa garatu behar duen Europako lurraldean bertan nahiz kanpoan GEDi laguntzeko eta babesteko, askatasunez jarduteko aukera izan dezaten.

Espainiako Estatuko arauzko hierarkia, hau da, lege eta legegintzako neurri guztien arteko lehentasunezko ordena, zehazten duten printzipioen arabera, konstituzioa, estatuak berretsitako nazioarteko itunak eta Europar Batasunean sortutako arau guztiak maila berean daude, hau da, estatuko eta lurralde-administrazioko instituzioek emandako edozein legeren gainetik. Hori dela eta, nazioarteko itunak sinatzean, giza eskubideen errespetuari eta bermeari buruz aipatutakoak, esaterako, instituzio guztiek bete behar dituzte derrigorrean, eta, horrez gain, nazioarteko itun batean eta barruko arau batean xedatutakoaren arteko gatazkarik egonez gero, nazioarteko itunean xedatutakoak izango du lehentasuna.

Nazioarteko itunen lurraldeko ezarpen-eremuari dagokionez, Itunen Zuzenbideari buruzko Vienako Hitzarmenaren 29. artikuluan xedatutakoaren arabera¹⁸, itunetan azaltzen diren xedapenak derrigorrezkoak izango dira lurralde osoan, hau da, pertsona eta administrazio guztiek (baita autonomia-erkidegoek eta tokiko erakundeek ere) nazioarteko arautegian xedatutakoa bete beharko dute.

Beraz, giza eskubideak sustatzeko eta babesteko eta, zehatz-mehatz, kanpoan nahiz barruan lan egiten duten giza eskubideen defendatzaileak babesteko betebeharrak, zenbait mekanismoren bidez Nazio Batuek eta eskualde-mailako eta, batez ere, Europa mailako instituzioek aitortu eta bermatu egin dutela kontuan hartuta, balio juridiko loteslea dauka, eta pertsona zein estatuko, autonomia-mailako eta tokiko agintari guztien erantzukizuna da. Era berean, estatuko, autonomia-mailako edota tokiko arautegiren batek defendatzaileak babesteko betebeharrak hori urratuko balu edota kontraesanean balego, indarririk gabe utzi beharko litzateke, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen eta Espainiako Konstituzioan zehaztutako arauzko hierarkiaren arabera.

¹⁷ Ikus https://eeas.europa.eu/sites/eeas/files/eu_guidelines_hrd_en.pdf

¹⁸ Hementxe dago ikusgai: https://www.oas.org/dil/esp/Convencion_de_Viena_sobre_derecho_tratados_Colombia.pdf

Esparru nazionalera jaitsiz gero, Espainiako Konstituzioaren 1. artikuluan xedatzen denez, Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa da, eta askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu bere ordenamendu juridikoko balio goren moduan.

Konstituzioko testuaren 9. artikuluan argitzen denez, botere publikoek behar besteko baldintzak sustatu beharko dituzte, pertsonen eta kide dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoa eta eraginkorrak izan daitezten, erabatekotasun hori eragotzi edo zailtzen dituzten oztopoak desagertu daitezten eta herritar guztiek bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartu dezaten.

10. artikuluan, ordea, honako hauexek ditu hizpide: pertsonen duintasuna, berez dituen eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea eta legearen zein gainerakoen eskubideen errespetua. Guzti-guztiak ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarria dira. Gainera, bertan adierazitakoaren arabera, Konstituzioan aitortzen diren oinarritzko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko orduan, Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsala eta Espainiak arlo horretan berretsitako nazioarteko hitzarmenak zein itunak hartuko dira kontuan.

Espainiako Konstituzioaren 140. artikuluan, udalen autonomia bermatzen da, eta bertako gobernuak zein administrazioa udalen euren esku dago.

Tokiko eremua herritarrengandik hurbilen dagoena da, eta bertako administrazioak behar besteko autonomia dauka, jarduerak bultzatzeko eta eskubide ekonomiko, sozial zein kulturalak benetan erabiltzen direla ondoen bermatzen duten zerbitzu publikoak emateko.

Tokiko erakundeen eskumenak lurralde-erakundeen berezko izaerakoak, legearen arabera zehaztutakoak edo estatuak edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoak eskuordetutakoak izan daitezke. Horrez gain, Tokiko Administrazioaren Arrazionaltasunari eta Jasangarritasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bidez modu partzialean aldatutako Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean arautzen dira batez ere.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (aurrerantzean, TAOAL) eskumenen esleipen orokor eta oso irekia diseinatu zuen udalentsat. Bertako 25. artikulua 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, bere interesak kudeatzeko orduan, udalak era guztietako jarduerak sustatu ditzakete bere eskumenen esparruan, eta behar besteko zerbitzu publikoak eman ditzake, auzokoei premiak eta asmoak betetzen laguntzeko. 36. artikulua 2. idatz-zatian aipatzen denez, legeek ziurtatu egin behar zuten tokiko erakundeek behar besteko eskubidea zutela

haien interesetan eragina duten gai guztietan parte hartzeko. Bestetik, 25. artikulua 2. idatz-zatian, udalen eskumenekoak bakarrik ziren zenbait gai aipatzen ziren, eta, haien barruan, estatuko edota autonomia-mailako legeriaren arabera zehaztu beharreko eskumenak erabili behar zituzten. Esparru horretan, estatuak nahiz autonomia-erkidegoek eskumenak esleitu zizkieten tokiko erakundeei, kasuan kasuko lege sektorialen bitartez (besteak beste, Nazioarteko Lankidetzari buruzko edo Kanpoko Zerbitzu eta Ekintzari buruzkoa, ondoren aipatu bezala).

Tokiko Administrazioaren Arrazionaltasunari eta Jasangarritasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea onartu egin zen, 135. artikulua eraldaketa konstituzionala egin ostean egokitzapenaren printzipioa bete behar zelako. Horren arabera, administrazio publiko guztien jarduketa aurrekontuen egonkortasunaren printzipiora mugatzen denez, aurrekontuen oreka eta zor publikoa edo kreditua jaulkitzeko mugak errespetatu behar dira.

TAOALen 7. artikulua berria, Tokiko Administrazioaren Arrazionaltasunari eta Jasangarritasunari buruzko Legeak ematen dion testuan, tokiko eskumenak berezkoak eta eskuordetutakoak direla azaltzen da.

Berezko eskumenak autonomia-araubidepean erabiltzen dira udalaren beraren erantzukizunpean, eta, dena dela, antolatzeko eta betearazteko orduan behar bezala koordinatuta egon behar dira gainerako administrazio publikoekin.

Eskuordetutako eskumenei dagokienez, estatuak edota autonomia-erkidegoek (AAEE) eskuordetutakoak izango dira. Edonola ere, administrazio eskuordetzaileak kontrolatzeko eta zuzentzeko ahalak izango ditu, eta udalak berak onartu egin behar dira ondorioak izan ditzaten.

Azkenik, lege honek kategoria berria sortzen du, hau da, berezkoak ez beste eskumen batzuk edo eskuordetzaren bidez esleitutakoak. Legearen arabera, eskumen horiek erabiltzeko, ezinbestekoa izango da udal-ogasun osoaren jasangarritasun finantzarioan eraginik ez edukitzea eta beste edozein administrazioarekin bikoiztasunik ez egotea. Beraz, administrazio eskudunak bikoiztasunik ez dagoela onartzen duenean eta udal-ogasun osoaren jasangarritasun finantzarioan inolako eraginik ez dagoela justifikatzen denean, eskumen horiek erabili ahal izango dira.

Aipatutako 27/2013 Legeak tradizioaren arabera tokiko erakundeek nazioarteko lankidetzaren arloko eskumenaren oinarritzat jo duten artikulua indarrrik gabe uzten badu ere, nazioarteko lankidetzaren eta giza eskubideen babesaren sektorea ez da berariaz aipatzen tokiko erakundeen berezko eskumen moduan. Hala ere, zuzenean sartu liteke eskuordetutako

eskumenen edo berezkoak ez beste eskumen batzuen edo eskuordetzaren bidez esleitutako eskumenen kategorietan.

Besteak beste, Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioko Lurralde eta Nazioarteko Koordinaziorako Zerbitzu Juridikoetako Zuzendaritza Nagusiak zentzu horretan egin ditu adierazpenak. Izan ere, Tokiko Administrazioaren Arrazionaltasunari eta Jasangarritasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren tokiko erakundeek garapenerako lankidetzaren arloan dituzten eskumenei buruz egindako berariazko adierazpen juridikoan¹⁹, xehetasunez azaldu eta argitu egiten du ez 27/2013 Legean egindako aldaketaren aurretik ez ostean ez dela garapenerako nazioarteko lankidetzaren sartzeko udalen berezko eskumenekoak izango diren gaien zerrendan.

Beraz, nazioarteko lankidetzari dagokionez, 27/2013 Legeak ez die udalei eta tokiko gainerako erakundeei eskumenik esleitzen eta kentzen.

Zehatz-mehatz, nazioarteko lankidetzaren arloan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko uztailaren 7ko 23/1998 Legeak berariaz aitortzen du autonomia-erkidegoek eta tokiko erakundeek plano bikoitzean garatzen duten zeregina.

Lehenengo eta behin, bertako 20. artikuluan xedatzen denez, tokiko erakundeek egiten duten garapenerako lankidetzaren bertako gizartearen adierazpen solidarioa izango denez, arautegian zehaztutako printzipio eta helburuetan oinarritu beharko da. Honako hauexek nabarmenduko ditugu, besteak beste:

- a). Bere banakako zein taldeko dimentsioan, pertsona bera horrelako ekimenen protagonista eta hartzaile nagusia dela aitortzea.
- b). Giza eskubideak, oinarritzko askatasunak, bakea, demokrazia eta herritarren partaidetza defendatzea eta sustatzea emakume zein gizonentzako berdintasun-baldintza berberetan eta, oro har, inor sexu, etnia, kultura edo erlijioagatik ez baztertzea eta dibertsitatea errespetatzea.
- c). Nazio guztietan, genero-berdintasuna kontuan hartzen duen elkarmenpeko eta partaidetzazko giza garapen global jasangarria sustatu behar izatea eta, horretarako, estatuen arteko baterako erantzukizunaren printzipioa ezartzen saiatzea.

¹⁹ https://www.cooperacionespanola.es/sites/default/files/informe_femp_competencias_cooperacion_desarrollo_cooperacion_espanola.pdf

d). Nazioarteko erakundeek hartutako konpromisoak errespetatzea.

Bigarrenez, bertako 23. artikuluan, tokiko erakundeen agerpena eta partaidetza bermatzen ditu Garapenerako Lankidetzako Lurraldearteko Batzordean, erakunde horrek garapenerako lankidetzako politikak eta laguntzak koordinatu, itundu eta betearazten laguntzen duela kontuan hartuta.

1988an garapenerako lankidetzaren arloko lehenengo arautegia onartu zenetik (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko uztailaren 7ko 28/1988 Legea), autonomia-erkidegoek apurka-apurka sendotu dute euren lankidetzaren politika, eta lurralde bakoitzeko eragile politikoa eta sozial guztiak berretsi duten esparru legal eta politikoa ezarri dute. 1999tik 2009ra, 17 AAEE-ek lankidetzari buruzko kasuan kasuko legeriak onartu zituzten. Guzti-guztietan, aitortu eta nabarmendu egin da tokiko erakundeek arlo horretan garatzen duten zeregina. Arautegi autonomiko horietan, arlo horretako politiken printzipioak eta irizpideak zehazten dira, eta kasuan kasuko autonomia-erkidegoen nahiz haien lurralde-eremuko tokiko erakundeen gidaria izango dira. Horrez gain, tokiko erakundeek arlo horretan garatzen dituzten jarduketan koordinaziorako eta elkarlanerako mekanismoak ere zehazten dira.

Estatuko Kanpoko Zerbitzu eta Ekintzari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legea ere aztertu beharra dago, eragin zuzena duelako nazioarteko lankidetzan. Lege horretan, estatuko kanpoko politika eta kanpoko ekintza bereizten dira. Lehenengoa, kanpoko politika, estatu zentralaren eskumenekoa baino ez da, eta honako hauxe da: nazioarteko beste eragile batzuekin dituen harremanetan, gobernuak hartzen dituen erabaki eta ekintza guztiak, estatuak kanpoan dituen balioak eta interesak zehazteko, sustatzeko, garatzeko eta defendatzeko. Bigarrena, kanpoko ekintza, operatibitate anitzaz egituratzen da, eta honako hauxe da: organo konstituzionalek, administrazio publikoek eta haien menpeko erakundeek, entitateek eta instituzioek euren eskumenen esparruan kanpoan garatzen dituzten jarduketan multzo antolatua. Jarduketok, hain zuzen ere, arautegi horretako printzipioen arabera garatzen dira, eta gobernuak kanpoko politikan daukan eskumenaren esparruan zehaztutako gidalerro, helburu eta xedeetara egokitu behar dira. Era berean, 24. artikuluan argitzen da garapenerako lankidetzaren estatuko kanpoko ekintzaren arloetako bat dela.

Bestetik, tokiko erakundeei berariaz dagokienez, 5. artikuluan aipatzen da estatuko kanpoko ekintzako subjektuak tokiko administrazioa osotzen duten erakundeak direla. Gainera, 2. artikuluan xedatzen denez, honako hauexek dira estatuko kanpoko politikaren inspirazio-printzipioak: giza duintasunaren errespetua, askatasuna, demokrazia, zuzenbide-estatua eta GGEE. Halaber, berariaz aipatzen du honako hauexek direla kanpoko

politikaren helburu zehatzak: nazioarteko segurtasunari eta bakeari eustea, alderdi anitzeko zilegizko instituzio sendoak sustatzea eta zuzenbide-estatuan nahiz oinarritzko eskubideen zein askatasun publikoaren errespetuan oinarritutako sistema politikoak bultzatzea eta sendotzea.

Garapenerako lankidetzari buruzko estatuko legeria horretan xedatutakoaren arabera, Espainiako Lankidetzarako V. Plan Zuzentzailean, 2018-2021eko epealdian Espainiako lankidetzako jarduketara gidatuko duten helburuak eta gidalerroak zehazten dira, kide dituen lankidetzaren sistema espainiarreko eragile guztiak kontuan hartuta: administrazio publikoko erakundeak; esate baterako, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia (AECID), Administrazio eta Politika Publikoetako Nazioarteko eta Iberoamerikarako Fundazioa (FIIAPP), autonomia-erkidegoak eta tokiko erakundeak, GGKE, sindikatuak, enpresak eta unibertsitateak, besteak beste.

Planean bertan, elkarren arteko lotura estua duten lau helburu orokor zehazten dira, eta bat datoz 2030eko Agendako bost dimentsioetatik laurekin: pertsonak, planeta, oparotasuna eta bakea. Planak Garapen Jasangarrirako lehenengo 16 Helburuak (GJH) hartzen ditu berezko helburu estrategikotzat, eta, GJHetan bertan, horiekin lotutako zenbait xede lehenesten ditu bere helburu zehatz moduan.

Hain zuzen ere, giza eskubideen defendatzaileak babesteko programak Garapen Jasangarrirako 16. Helburuaren barruan kokatzen dira: Bakea, Justizia eta Institutuzio Sendoak. Helburu hori betetzeko, zenbait xede eta jarduketara-lerro hartzen dira kontuan. Haietako bat zuzenbide-estatuak sustatzea eta justizia eskuratzen dela bermatzea da, eta, horren barruan, zehaztutako lerro moduan aurreikusten da justizia-sistemei lagundu behar zaiela, giza eskubideen babes integralerako behar besteko sendotasuna eta independentzia eduki ditzaten. Xede honetan, modu berezian hartzen da kontuan politika publikoetako ekintzak sustatu behar direla, giza eskubideei buruzko legeria indarrean sartzeko edo eraldatzeko. Horrela, arlo horretako arautegiarekin eta nazioarteko hitzarmenekin homologatu ahal izango da, eta behar besteko behatokiak jarri ahal izango dira abian, giza eskubideen arloan lortutako aurrerakuntzak ikuskatu ahal izateko. Era berean, giza eskubideen defendatzaileak babesteko programak ere bultzatuko dira.

Ildo beretik, estatuak 1993ko ekainaren 25ean egindako Giza Eskubideen Munduko Konferentzian hartutako konpromiso eta betebeharren arabera, Giza Eskubideen Plana onartu zen Ministroen Kontseiluak 2008ko abenduaren 12an hartutako erabakiaren bidez. Plan horretan, lehenetsutako bi ardatz daude: berdintasuna, ez-bereizkeria eta integrazioa; eta giza eskubideen bermea. Gainera, Kanpoko Ekintza eta



Barruko Ekintza epigrafepean integratzen diren zenbait neurri ere zehazten dira.

Kanpoko ekintzaren esparruan, zenbait helburu zehazten dira, bidezkoagoa eta solidarioagoa den gizarte globala eratzeko; esate baterako, bakearen, demokraziaren, garapenerako lankidetzaren, elkartasunaren eta justizia sozialaren aldeko konpromisoari eustea. Horretarako, honako hauexen jarduketa-eremuen arabera sailkatutako berrogeita bat ekintza aurreikusten dira: NBE, EB, Europako Kontseilua, ESLA eta Nazioarteko Zigor Gortea.

Kanpoko politikak giza eskubideen arloan dituen helburu zehatzen barruan, berariaz aipatzen da GGEE-en defendatzaileen babesa. Ildo horretatik, aldebiko eta aldeanitzeko harremanen esparruan, zehaztutako tresna moduan ezartzen da Giza Eskubideen Defendatzaileen Harrera eta Babeserako Programak indartzea.

Giza Eskubideen Plana Ebaluatzeko Txostenean ateratako ondorioen arabera, Giza Eskubideen Bulegoak kudeatzen dituen Giza Eskubideen Defendatzaileen Harrera eta Babeserako Programa indartzeko prozesuari dagokionez, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak, Barne Arazoetako Ministerioaren laguntzaz, irailaren 21eko 1257/2007 Errege Dekretua jarri zuen abian. Horren bidez, behar besteko arauak onartzen dira, Espainiatik kanpo ohiko bizileku duten herrialdeetan giza eskubideen defentsan garatzen duten jardueragatik mehatxatuta edo jazarrita daudenentzako laguntzen esleipen zuzena arautzeko.

3

Nazioartean, estatuan eta autonomia-mailan giza eskubideen defendatzaileak babesteko abian jarritako neurriak

GEDak babesteko ekimen ugari daude nazioartean, eskualdean, estatuan eta autonomia-mailan. Estatuak eta bertako administrazioek jarri dituzte abian, edo nazioarteko erakundeek eta defendatzaileen erakundeek bultzatu dituzte. Babeserako ekimen horiek zenbait eratakoak dira: laguntza politikorako ekintzak garatzea, larrialdietako bisak ematea, giza eskubideen defendatzaileen aldi baterako harrerarako programak abian jartzea... Guzti-guztiak nazioarteko elkartasun eta laguntzarako tresnak dira, eta honako hauxe dute helburu: defendatzaileen bizia eta osotasun fisikoa babestea eta, sorterrian bertan, giza eskubideen defentsarako prozesuei eustea, harrera-herrialdeetako erakunde, mugimendu eta instituzioekin egituratuta.

1. Nazioarteko, eskualdeko eta estatuko ekimen instituzionalak

Nazioartean, Ingurumenerako Nazio Batuen Programan, Ingurumen Eskubideen Ekimena²⁰ nabarmentzen da, eta 2018an aurkeztu zen Genevan, ingurumenaren defendatzaileek mundu zabalean jasandako mehatxuei, larderiari eta etengabeko hilketei aurre egiteko eta haiei euren eskubideak hobeto defendatzen laguntzeko. Bertan, ingurumen-eskubideak babesten laguntzen zaie estatuei, eta gobernuei eskatzen zaie defendatzaileen babesa lehenetsi dezatela eta erasotzaileak justiziaren aurrean jarri ditzatela. Era berean, sektore pribatuari ere dei egiten zaio, erkidegoen errespeturako gutxieneko estandarretatik harago joan dadin.

Europa mailan, EBk, GEDei buruzk Gidalerroen bidez, defendatzaileak hirugarren herrialdeetan enbaxaden eta bere ordezkartzen bitartez babesteko konpromiso politikoa hartu zuen, eta, bertan, honako hauxe

²⁰ <https://www.unenvironment.org/es/noticias-y-reportajes/video/iniciativa-de-derechos-ambientales-de-la-onu>

hartzan zen kontuan: babeserako tresnak, larrialdietako bisak, epaiketen behaketa, EBko programen bidezko laguntza finantzarioa -esate baterako, Demokraziarako eta Giza Eskubideetarako Ekimen Europarra (IEDDH)-, NBEko sistemako prozedura berezietarako laguntza eta defendatzaileen egoerari buruzko txostenak. Era berean, antzeko gidalerroak ere ezarri dira beste herrialde batzuetan²¹.

EBk GEDentzat duen mekanismoa ProtectDefenders.eu²² da, mundu zabalean egoera zaileri aurre egin behar dieten emakume defendatzaileak babestea dauka helburu eta genero-ikuspegia kontuan hartzen duen laguntza eskaintzen die. GGEE-etako 12 GKEk osatutako Partzuergoa da liderra, eta Demokraziarako eta Giza Eskubideetarako Ekimen Europarraren (IEDDH) babesa dauka, bere finantzaketaren %95 ematen du-eta.

Estatu-mailan, EBko zenbait herrialdek legegintzako ekimenak egin dituzte GEDek euren mugetatik kanpo duten egoerari buruz; esate baterako, Alemaniako Parlamentuak GGEE-en Defendatzaile Mehatxatuen Babesari buruz egindako Mozioa, Espainiako Estatuko Diputatuen Kongresuan Giza Eskubideen Defendatzaileen Babesari buruz onartutako Legez Besteko Proposamena²³ edo Italiako Ganberako Kanpo Arazoetako Batzordeak GEDen Babesari buruz emandako Ebazpena. Azken hori dela eta, gobernuak behar besteko konpromisoa hartzen du, giza eskubideen defendatzaileen babeserako ekimenak sustatzeko.

Azken urteotan, zenbait gobernuak defendatzaileen babeserako mekanismo nazional bereziak garatu dituzte apurka-apurka, giza talde hori babesgabetasun-egoera larrietan duten herrialdeetan, eta, oro har, giza eskubideen defentsarako erakundeen laguntzapean eta presiopean sortu dira mekanismo horiek (legeak, politikak, bulegoak).

Amerikako kontinentean, babeserako mekanismo nazionalak ezarri dira, giza eskubideen defendatzaileen eta beste talde batzuen, hala nola sindikalisten, kazetarien eta justiziako langileen²⁴ segurtasuna bermatzeko. Horren adierazgarri da Brasilgo GGEE-en Defendatzaileen Babeserako Programa edo Kolonbiako Segurtasun Bermeetarako Batzorde Nazionala. Erronka handiko eskualdean giza talde horren babesa hobetzeko eman diren urrats txikiak dira.

²¹ 2007an, Front Line Defenders erakundeak gai honi buruzko eskuliburu erabilgarria argitaratu zuen (What protection can EU and Norwegian Diplomatic Missions offer).

²² <https://www.frontlinedefenders.org/en/programme/eu-mechanism-protectdefenderseu>

²³ http://www.congreso.es/public_oficiales/L12/CONG/BOCG/D/BOCG-12-D-452.PDF

²⁴ <https://www.amnesty.org/download/Documents/AMR0189122018SPANISH.PDF>

Europar, defendatzaileen babeserako programak dituzten zenbait herrialde daude. Suitzian, esaterako, babesari buruzko gidalerroak egin dituzte, politika baten ezarpenerako neurri zehatzak azaltzeko. Bestetik, GGEE-en Defendatzaileentzako Ekintza Plana dago Holandan, eta emakumeak zein LGBTI giza taldea ditu helburu.

2. Espainiako Estatuko ekimen estatal eta autonomikoak

Arriskuan dauden defendatzaileen babesaren GGEE-en arloko lankidetzaren lehenetsunetako da Espainiako Estatuan eta AAEE gehienetan. Konpromiso hori ezartzeko, instituzio publikoak eta gizarte zibileko erakundeak honako hauexen bidez koordinatu behar dira batez ere: defendatzaileak babesteko proiektuak eta zenbait eragile sozialen eta, oro har, iritziz publikoaren sentsibilizaziorako eta eraginerako ekintzak, besteak beste. Amerika Latinoa horrelako ekimenen lehenetsunezko eskualdeetako da.

Aldi baterako birkokatze programak estrategia zabalagoaren elementuak dira, babes integralaren osagaiak eta, batez ere, azken neurria, maila nazionalean beste era bateko babesaren agortu ostean. Aldi baterako babesak zenbait eragile egituratzen ditu, eta, euren gaitasunen esparruan, ekarpenak egiten dituzte sorterrian edo jatorrizko lurraldean nahiz harrera-herrialdean. Oro har, bi urtetik gorakoak ez diren egonaldiak eskaintzen dituztenez, GEDEk eta, batzuetan, euren familiek badute arrisku-testuingurutik irteterik eta Espainiako lurraldean epealdi zehatz bat igarotzerik, euren babeserako zein autozainketarako zenbait jardura egiten, jasandako GGEE-en urraketak salatzen eta, itzulitakoan, jarraipenerako ekintzak garatzen.

Espainiako Estatuan, zenbait ekimen ezartzen ari dira; esate baterako, Kanpo Arazoetako Ministerioako GED Mehatxatuen Aldi Baterako Babes eta Harrerarako Programa eta lurralde autonomikoetan eraturako era guztietako babes-programak: Kolonbiako Indarkeriako Biktimen Arretarako Programa Asturiarra, Giza Eskubideen Defendatzaileen Aldi Baterako Babeserako Euskal Programa eta Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Programa Kataluniarra, besteak beste. Azken hori, hain zuzen ere, Kataluniako Generalitatek sustatzen du Sant Cugatoko Udalaren laguntzarekin, eta CEAREk kudeatzen du. Orain dela gutxi, Aragoi, Kolonbiako eta Saharako giza eskubideen defendatzaileen babes eta harrerarako programa abian jartzea onartu da, haien bizia arriskuan dago-eta²⁵.

²⁵ <https://www.publico.es/sociedad/ddhh-espana-habilita-seis-santuarios-defensores-derechos-humanos-amenazados-muerte.html>

3. Gizarte zibilak bultzatutako ekimenak

Erakunde batzuen ekintzek haien herrialdeetan nahiz nazioartean defendatzaileak estatuen, talde armatuen eta enpresen aurrean babestea baino ez dute helburu. Erakundeok eragin politiko zein juridikorako eta komunikazio-arloko eraginerako gaitasuna dute aholkularitza-estatusa dutelako nazioarteko erakundeen aurrean, behaketarako gaitasuna dutelako eta euren lan-sareak zabalak direlako. Honelako erakundeak ditugu hizpide: Nazioarteko Amnistia, Front Line Defenders edo GGEE-en Nazioarteko Federazioa (FIDH). Azken horrek, hain zuzen ere, Torturaren aurkako Mundu Erakundearekin (OMCT) sortu du GEDak Babesteko Behatokia²⁶. Horrez gain, gizarte zibilak sortutako defendatzaileen unitate aitzindariak ere badaude, eta, Protection Internationalek sortutako Protection Deskekin eta laguntasunerako erakundeekin batera (Peace Brigades International, esaterako), giza eskubideen defendatzaileak lekuan bertan babestea xede nagusi duten erakundeen artean daude.

Espainiako Estatuan, Amnistiako Espainiako Sekzioko Giza Eskubideen Defendatzaileen Aldi Baterako Babeserako Programa dago, baita Defenred erakundeak abian jarritako Atsedean Etxearen esperientzia ere. Oraintsuago, 2017an, Madrilen eratu zen defendatzaileen babeserako erakundeen sarea. 25 erakundek osatzen zuten²⁷, eta honako hauexek izan dira bere lan-lerroak: babes eta eragin politikoaren arloko barruko prestakuntza, sentsibilizazioa (GGEE-en defendatzaileen kriminalizazioari buruzko mintegiaren antolaketa) eta eragin politikoak.

Suedian, Civil Rights Defenders nazioarteko erakundeak pertsonen eskubide zibil eta politikoak defendatzen ditu. Horretarako, munduko eskualde zapaltzaileenetako batzuetan lan egiten duten GEDekin elkartu eta lagundu egiten diete. Sustapen-kanpainen, auzien eta jendaurreko kanpainen bidez, pertsonen eskubideak bultzatzen dituzte mundu zabalean. 2013. urteaz geroztik, "Natalia Project" dute, hau da, arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileentzat GPSn oinarritutako segurtasun-alarmarako munduko lehenengo sistema²⁸.

²⁶ www.omct.org/human-rights-defenders/observatory

²⁷ Hona hemen sarea osatzen duten erakundeak: AIETI, Entrepueblos, Nazioarteko Amnistia, PBI, Nazioarteko Babesa, Jass, Front Line Defenders, Defender a Quien Defiende, Defenred, Mundubat, Ansur, CEAR Euskadi, Madril Bakea eta Elkartasuna Fundazioa, Madrilgo Langile Komizioak, Calala, APDHE, Ekologistak Martxan, Lurraren Lagunak, Espainiako Abokatuen Fundazioa, Bakea eta Duintasuna, OMAL, ICID, Espainiako eta Guatemalako Batzordea, Sol Lege Batzordea eta Novact.

²⁸ Informazio gehiago: <https://crrd.org/>

Europar ez ezik, hementxe ere badaude gobernu kanpoko ekimen estatalak: Brasil, Kolonbia, Guatemala, Mexiko eta Peru (Amerika); Uganda eta KED (Afrika); eta Nepal (Asia²⁹), besteak beste.

29 Asian, esperientzia interesgarriak daude; Forum Asia, esaterako. Giza eskubideen, garapenaren, lankidetzaren eta elkarlanaren arloko foro asiarra da, erakundeek zein GEDek parte hartzen dute bertan eta premiazko laguntza zein babesa ematen dizkie arriskuan dauden GEDei eta GEDMei, baita birkokatze laguntza, lege-laguntza eta epaiketarako behaketa zein kontrola ere. Webgunea: www.forum-asia.org



4

Tokiko erakundeek giza eskubideen defendatzaileak babesteko abian jarritako neurriak

Era berean, tokiko erakundeek ere betetzen dute giza eskubideen defendatzaileak babesteko betebeharra. Beraz, nazioartean nahiz Espainiako Estatuan, era guztietako adibideak daude GEDEk garatutako lana sustatzen duten ekimenetan.

Nazioartean, Shelter City Sarearen (Babes Hiriak) ekimena nabarmendu beharra dago. Ekimen hori Justizia eta Bakea erakundeak abian jarri zuen Holandan, baina, gero, arriskuan dauden defendatzaileak babesteko sare globalera hedatu da, eta lankidetzan zeukan gizarte-eremua berreskuratu du gero eta hiri eta tokiko erakunde gehiagok bat egitean. Mundu zabaleko 16 hirik aldi baterako birkokapena eta aterpea, gaitasunen garapenerako tresnak, prestakuntza eta segurtasuna eskaintzen dizkiete mundu zabalean euren herrialdeetan GGEE-en urraketei aurre egin behar dieten GEDEi. Babes Hiri bakoitzean, udalak, tokiko erakundeek eta unibertsitateek babesa eskaintzen dute, eta giza eskubideen defendatzaileentzat programaz arduratzen dira. GEDEkin, batzarrak eta tailerrak antolatzen dituzte, Shelter Citieta³⁰ biztanleen artean giza eskubideen arazoengatik inguruko kontzientzia sortzen laguntzeko. Beste adibide adierazgarri bat Italiako Trentoko Probintzia Autonomokoa da, 2018an mozio baten bidez onartu zuelako giza eskubideen defendatzaileentzako programa³¹. Lehen aldiz, Italian, tokiko administrazio batek GGEE-en defendatzaileei laguntzeko konpromisoa hartu zuen, eta mehatxatutako ekintzaileen laguntasuneranzko oinarriak finkatu ditu, haien harrerarako babes-hiria garatzeko proposamena egitean.

Espainiako Estatuan, hiru hiri nabarmentzen dira defendatzaileak babesteko ekimenak abian jartzeko orduan: Bartzelona, Madril eta Valentzia.

30 Ikus <https://sheltercity.nl/en/>

31 Italiaraz dago ikusgai: <https://www.osservatoriodiritti.it/wp-content/uploads/2018/02/diritti-umani-trento.pdf>

Azken urteotan, Bartzelonako Udalak zeresan handiagoa ematen die giza eskubideei politika publikoetan. “Bartzelona Zuzenbide Hiri Programa” neurriko jarduketa-lerroetako bat giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen eta erakundeen sarea sortzea da. Horrekin lotuta, “Giza Eskubideen Defendatzaileen Eskola” jarri da abian, eta Bartzelonan GGEE-en defendatzaile moduan diharduten pertsonen eta erakundeen gaitasunak sendotzeko tresna izan nahi du, haien helburu eta premietara egokitutako prestakuntza-programaren bidez.

Halaber, “Bartzelonak Mexikoko kazetariak babesten ditu” udal-programa ere badago bertan (Taula per Mèxic erakundearekin egindako lankidetzahitzarmena), eta euren lanbidea garatzeagatik nahiz GGEE-en urraketak salatzeagatik mehatxatutako talde horretako pertsonen aldi baterako egonaldia eskaintzen die Bartzelonan. Laguntasun integrala ematen zaie, eta behar besteko kudeaketak egiten dira, bisak izapidetzeko eta haien egonaldiako lege-aholkularitza emateko, Bartzelonako Udaleko SAIERen bidez (Etorkin, Emigrante eta Errefuxiatuen Sarretarako Zerbitzua).

Era berean, Bartzelonako Udalak PEN Cataláneko “Harrerapeko Idazlea” Programari ematen dio laguntza. Bertan, bi urteko harrera ematen zaio bere idatzen ondorioz mehatxatuta, jazarrita edo espetxeratua izateko arriskuan dagoen idazle bati. Bartzelonako hiria ICORN Sareko (International Cities of Refuge Network) kidea da, Bartzelonako Udaleko ordezkari moduan diharduen PEN Catalánen bitartez.

Bestetik, 2017an, Madrilgo Udala izan zen estatuan Giza Eskubideen Plan Estrategikoa zeukan lehenengo hiria. Planean, 5 atal desberdinetan banatutako 22 xede agertzen dira guztira, eta, haien artean, 20. xedea nabarmentzen da: *justizia eta elkartasun globalerako udal-politika publikoa eratzea eta giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia eskaintzea (aurrerantzean, GEOI). Xede horren esparruan, planaren helburuetako bat izango da “giza eskubideen, defendatzaileen eta giza eskubideen defentsarako erakundeen defentsa sustatzea”.* Hori dela eta, helburu hori lortzeko neurri zehatzak ezarriko dira, eta, haien artean honako hauxe nabarmendu beharra dago: *“Madrilen, Espainiaren gaineratikoan nahiz mundu-mailan giza eskubideen defendatzaileei laguntzeko estrategia garatzea eta, horretarako, besteak beste, gai hau kontuan hartzea udalak tokiko beste gobernu batzuekin, Madrilen egoitza duten enbaxadekin edo eremu nazional edo globaletan dituen harreman instituzionaletan, Nazio Batuen edo EBren gomendioei erreparatuta”.*

Plan estrategiko horren esparruan, 2018an Madrilgo hiriko Giza Eskubideen Defendatzaileen Aldi Baterako Harrerarako I. Programa jarri zen abian (Mundubat Fundazioak kudeatzen du). Programa horren bigarren

edizioa ezarri da, eta, orain arte, Kolonbian egoera zaurgarrian zeuden 6 defendatzaileari eman die aldi baterako harrera (4 emakume eta 2 gizon).

Oraintsuago, Valentziako Udalak Valentziako GGEE-en Defendatzaileen Babes eta Harrerarako Programa jarri du abian (Valentziako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Migrazioko Zinegotzigoaren menpe dago), Valentziako gizarte zibilaren deiari erantzuteko asmoz. Programa bera Comissió d’Ajuda al Refugiat del País Valencià kudeatzen du, eta, gaur egun, ekimen horretan parte hartuko duten lehenengo defendatzaileen harrera prestatzeko fasean dago.

Udal batek sustatutako, suspertutako edo babestutako ekimen horiek ez ezik, beste ekimen kolektibo batzuk ere badaude estatuan. Bertan, tokiko zenbait erakundek euren ahaleginak koordinatzen dituzte, defendatzaileen lana sustatzeko eta egoera zaurgarrian daudenean babesteko.

Giza Eskubideen aldeko Hiri eta Herrien Sarea

Bartzelonako Udalak bultzatutako Giza Eskubideen aldeko Hiri eta Herrien Sarean, 134 udal daude, eta bat egin dute Hirian Giza Eskubideak Babesteko Gutun Europarrarekin³². Sare horretako kideak diren udalek behar besteko konpromisoa hartzen dute, besteak beste, honako hauxe eskaintzen duen ekintza-plana abian jartzeko: berrikuntzako jarduerak, giza eskubideen arloko prestakuntza zein ikerketa eta tokiko erakundeek giza eskubideen sustapenean nahiz babesean duten zereginaren zabalkundea eta aitortza.

Ciutats Defensores dels Drets Humans Programa

“Giza Eskubideen Hiri Defendatzaileak” honako hauexen arteko baterako proiektua da: Garapenerako Lankidetzaren Fondo Kataluniarra, Errefuxiatuei Laguntzeko Batzorde Kataluniarra, Kataluniako Giza Eskubideen Erakundea eta Bakearen aldeko Nazioarteko Erakunde Kataluniarra. Ciutats Defensores dels Drets Humans de Catalunya Programan, 26 udalek baino gehiagok parte hartzen dute, eta honako hauexek inplikatzeko dituzte: laguntza tematiko, material eta komunikatiborako zenbait erakunde, GKE espezializatuak, Sindic catalán³³ eta Parlament.

32 Hirian Giza Eskubideak Babesteko Gutun Europarra Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak (CGLU) erakundearen ekimena da, Gizarte Inklusio, Partaidetzazko Demokrazia eta Giza Eskubideen Batzordearena, hain zuzen ere. Bertan, giza eskubideen eta hirirako eskubidearen aurrerakuntzarekin konpromisoa duten munduko tokiko gobernuak elkartzeko dira. <https://www.uclg-cisdp.org/es/el-derecho-la-ciudad/carta-europea>

33 *Ombudsmána edo tokiko arartekoa.*

Programaren bidez, urtean birritan, 8-12 eguneko harrera ematen zaio giza eskubideen defendatzaileen talde bati, eta, GEDen lana jakitera ematen duenez, hiri parte-hartzaileetako herritarrak GGEE-en defentsa haien eguneroko zereginean integratzeko premiaren inguruan kontzientziatzen laguntzen du.

Fòrum de Síndics i Síndiques, Defensors i Defensores Locals (FòrumSD)

Irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta Kataluniako udalerrietako tokiko defendatzaileek nahiz sindikoeek eratzen dute. Gaur egun, 43 sindikatura elkartzen ditu guztira (38 Katalunian - estatuaren gaineratikotik bat egindako 5 kide). 2016an, Tokiko Defendatzaileen Nazioarteko Biltzarra egin zen, eta mundu zabaleko ombudsmanak elkartu ziren bertan³⁴. Biltzarra “Modu globalean pentsatu eta tokian-tokian defendatzen dugu” lelopean garatu zen, eta, bertan, Gironako Adierazpena onartu zen³⁵, hau da, tokiko defendatzaileek GGEE-en babesean duten zeresanaren aldarrikapena, krisi ekonomikoaren eta aldaketa sozial zein politikoen ondorioz murrizketa handia egin denean.

Tokian-tokian Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Programen ezaugarri nagusiak

A) Helburuak:

Hona hemen horrelako programen helburu nagusia: giza eskubideen defendatzaileak babestea, euren sorterrietan garatzen duten jardueragatik haien bizia edo osotasun fisikoa mehatxupean dagoenean. Hain zuzen ere, honako hauxe da xedea: atsedena, jasan dituzten larderietatik edo urraketetatik bizkortzeko aukera ematea, haien egoerari aurre egiteko dituzten gaitasun pertsonal zein profesionalak indartzea eta, aldi berean, haien jarduera agerian jartzea eta nazioartera eramatea.

Programa gehienek defendatzaileei aldi baterako babesa ematea dute helburu, baita haien sorterrietako lurraldeetan ingurune segurua sortzen laguntzea ere. Hartara, bete-betean ahalegintzen dira pertsona horien eta haien erakundeen laguntza instituzional eta politikorako nazioarteko sareak indartzen, prestakuntzarako eta eragin politikorako ekintzen bidez. Praktikan, sare horiek babeserako mekanismoak direnez, GGEE-en defentsarako lana sorterrian egiten jarraitzeko aukera ematen dute.

³⁴ Ikus <http://www.forumsd.cat/inici/>

³⁵ <http://www.ilo-defensordelpueblo.org/declaraciones-blog/74-declaraci%C3%B3n-de-girona>

Era berean, sorterriko lurraldeetara itzultzen direnean defendatzaileen tresnak hobetzea ere bada helburua (prestakuntzarako, laguntasun psikosozialerako, laguntza-sareen sorrerarako... estrategien bidez), baita Espainiako Estatuko erakundeen eta Harrerarako Programan parte hartzen duten defendatzaileen erakundeen arteko lotuneak estutzea ere.

Azkenik, baina garrantzitsua ere bada, horrelako programek GGEE-en defendatzaileek hirugarren herrialdeetan jasan behar duten egoerari buruz Espainiako herritarrek duten ezagutza hobetzea ere badute helburu, Espainiako eta Europako tokiko instituzioak eta herritarrak defendatzaileen erakundeek jasaten dituzten mehatxuen eta arlo horretan dituzten aldarrikapenen inguruan sentsibilizatzeko, agerian jartzeko eta salatzen asmoz.

B) Epealdiak:

Programa horiek giza eskubideen defendatzaileentzako iraupen desberdineko egonaldiak aurreikusten dituzte Espainiako Estatuan; esate baterako, Ciutats Defensores dels Drets Humans Programako 2 asteko gutxieneko egonaldia eta PEN Catalánek kudeatutako “Harrerapeko Idazlea” Programan aurreikusitako 2 urteko gehieneko epealdia, besteak beste.

Programa batzuetan, gure herrialdeko egonaldia hiru hilabetekoa da, Mundubatek Madrilgo Udalean kudeatzen duen Aldi Baterako Harrerarako Programan, esate baterako. Beste programa batzuetan, ordea, batez besteko egonaldia 6 hilabetekoa da, Bartzelonako Udalekoan eta Valentziako programan, esaterako.

C) Jarduerak:

Harrerapekoek garatzen dituzten jarduerak programa bakoitzeko epealdien eta helburuen arabera dira. Programa gehienetan, honako hauxe hartzen da kontuan: pertsona horien eta haien erakundeen laguntza instituzional eta politikorako nazioarteko sareak indartzen laguntzeko ekintzak; prestakuntza-prozesuetako partaidetza hartzaileak eta defendatzaileek eremu akademiko zein sozialetan eduki beharreko partaidetza aktiboa aurreikusten dituzten prestakuntza-jarduerak; komunikabideekin ezarritako harremanak; eta euren komunikabideetan zabaltzeko ekintzak. GGEE-en inguruko salaketarako, sentsibilizatorako eta sustapenerako zereginak egiten dira harrerako gizartean. Luzeenak diren programa batzuetan, etxebizitzaren, enpleguaren, hezkuntzaren eta osasunaren arloko laguntza-neurriak ere ezartzen dira.

E) Harrerapekoen profila:

Ekimen horietako hartzaileak giza eskubideen defendatzaileak dira, eta, batez ere, Amerika Latinoko herrialdeetakoak dira: Kolonbia (Madrilgo Udaleko Programa) eta Mexiko (Bartzelonako Udaleko Programa).

Profil profesionali dagokienez, oro har, euren sorterrietan GGEEak defendatzeagatik arriskuan dauden pertsonak babesten dituzte programa guztiek. Oro har, giza eskubideen arloko ekintzaileak, sindikalistak, lider indigenak, irakasleak... dira. Bartzelonako Udalak gehiago zedarritzen du sektore profesionala, euren lanbidea garatzeagatik eta giza eskubideen urraketak salatzeagatik mehatxatutako kazetariak dituelako helburu.

Programa batzuetako erabiltzaileen zerrendetan, zehatzak izan arren, baliteke defendatzaile-mota jakin batzuk kanpoan geratzea, nahiz eta nazioarteko tresnek eskainitako definizioetan agertzen diren. Hartara, ikastetxeetatik edo erakunde sozialetatik kanpo dauden beste leku batzuetatik GGEE-etako hezkuntzan diharduten defendatzaileak programetatik kanpo geratuko lirатеke, tradizioari begira sektore hori indarkeria politikoko biktima izan bada ere. Beste programa batzuek GGEE-en arloko erakundeetan integratuta ez daudenak baztertzeko omen dituztenez, herritarren partaidetzarako mekanismoen bidez edo instituzioetatik lan egiten duten defendatzaileak ere ez lirатеke babestuta egongo.



5

Ondorioak (arrazoien dekalogo)

- 1.** Estatu giza eskubideak oro har eta modu berezian errespetatzeko, babesteko eta garatzeko betebeharraren titularra da. Gainera, haien zeregina oso garrantzitsua dela kontuan hartuta, giza eskubideen defendatzaileen eskubideak ere babestu behar ditu, euren eginkizuna sorterrian edo Espainiako Estatuan garatzen duten kontuan hartu gabe.
- 2.** Tokiko erakundeek, oinarrizko organismo eta estatuko lurralde-antolamenduaren funtsezko osagai moduan, lurraldetasunaren printzipioaren arabera, giza eskubideak eta, zehatz-mehatz, giza eskubideen defendatzaileen eskubideak errespetatzeko, babesteko eta garatzeko betebeharra dute, Espainiako lurraldean bertan edo kanpoan lan egiten duten kontuan hartu gabe.
- 3.** Indarreko ordenamendu juridikoa aztertu ondoren, argi eta garbi dago tokiko erakundeek, euren eskumenen esparruan, badutela giza eskubideen babesaren arloko neurri bereziak garatzerik. Haien artean, giza eskubideen defendatzaileak babesteko programak daude, tresna horiek nazioarteko lankidetzarako politiketan edota giza eskubideen sustapenerako planetan agertzen diren kontuan hartu gabe.
- 4.** Tokiko erakundeen posizioa abantailatsua da euren bilbe sozialagatik eta giza eskubideen defendatzaileen helmuga den ingurunearekin duten hurbiltasunagatik, pertsona horien helduera zein harrera errazteko orduan eta, horren ondorioz, babeserako programen helburuak betetzeko orduan.
- 5.** Tokiko erakundeek horrelako ekimenak garatzen badituzte, eragina handiagoa izan daiteke horrelako programen beste helburu nagusietakoa batean: eskubideen arloko hezkuntza sustatzea; herritarrak zein instituzioak eskubideen defendatzaileek euren eguneroko bizimoduan jasaten dituzten eskubide-urraketen eta haien aldarrikapenen zein lan-testuinguruaren inguruan sentsibilizatzea, agerian jartzea eta salatzea; eta giza eskubideen defentsarako sareak eratzea eta sendotzea.

6. Administrazio publikoen eta lankidetzako eragileen artean osagarritasunik eta koordinaziorik badago, babeserako neurrien eraginkortasuna eta koherentzia handiagoak izango dira. Adostasuna, lankidetzarako eta GGEE-en babeserako politiken oinarria, eta politiken koherentziaren printzipioa lortzeko, administrazio publikoen inplikazioa aktiboa eta koordinazioa estua izan behar dira haien eskumenen esparruan. Horretarako, herrialdeak giza eskubideen alde egindako era bateko edo besteko ahaleginak birbideratu behar dira eskema eraginkor baterantz (eragin handiagoa erdiestea, baliabideak gehitzea, oztopo administratiboak murriztea...).
7. Defendatzaileen babeserako ekimenak abian jartzeko orduan tokiko erakundeek badute indar nagusirik, lurraldeko teknikariek eta politikariek ondo baino hobeto dakitelako zein diren lurraldearen premiak arlo guztietatik. Horri esker, badago udalen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak-formulak diseinatzerik, GGEE-en arloan interes erkidekoak diren jarduerak garatu ahal izateko. Tokian-tokian, gainera, bilbe soziala dago auzoetan, ikastetxeetan (auzokoen batzak, gurasoen elkarteak...), herritarren laguntasunaz horrelako ekimenak egituratu ahal izateko.
8. Tokian-tokian, errazagoa da defendatzaileen aurkako indarkeriak era interseksionalean jorratzea, genero-dimentsioak, gutxiengodunetako kideak... kontuan hartuta, defendatzaile nazionala eta harrerapean datorrena zuzenean ezagutzen direlako eta eskubidedun subjektutzat hartzen direlako (giza eskubideen defentsa) eta ez babesaren helburutzat. Horrez gain, gaur egungo egoera politikoa kontuan hartuta, herritarrengandik hurbilen dauden eremuetan naturalizatzen den arrazakeriari buruz hausnartu beharra dago. Pentsaera eta epistemologia europarretan, eskubideak bermatuta daudenez, ez dago defendatzailearik, Europan ere jazarri eta erail egiten badituzte ere³⁶. Herritarren artean ez ezik, tokiko instituzioetan ere eratu behar da dialektika berria, oso garrantzitsua delako bertan iragaztea. Gure auzoetako bizilagunak eta ekintzaile migratzaileak dira diskurtso hobe eta errealistagoa eratzen dutenak, beste era bateko politikak egiteko eta pribilegioak jalgitzeko orduan³⁷.

³⁶ Soumaila Sackoren kasua. Maliar hau orain dela urtebete tirokatu zuten Italiako hegoaldean, lankide migratzaileek Italiako hegoaldean 20 euroren truke egiten zituzten 12 orduko lanaldiak salatzen zegoenean.

³⁷ Helena Maleno. <https://www.pikaramagazine.com/2019/07/helena-maleno/>

9. Espainiako herritar gehienak nazionalarekin eta tokian tokikoarekin³⁸ baino ez dira identifikatzen. Hori dela eta, ezinbestekoa da Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren (GEH) arloko estrategiak ezartzea, haien konpromisoa lortzeko eta kalitateko garapen-politikan parte hartzeko, elkartasunarekin, justizia sozialarekin eta GGEE-ekin lotutako balio zein jarreraren ezagutzaren bidez³⁹. Defendatzaileak babesteko mekanismo gehienak GEHeko edo garapenerako lankidetzako estrategietan daude txertatuta, eta tokian-tokian betearazten dira. Erronka da zeharkako beste ikuspegi batzuk arakatzea Nazio Batuen 2030eko Agendaren espirituaren arabera eta globalagoa den esparrutik. Madrilgo Udalak garatutako Defendatzaileen Aldi Baterako Babeserako Programa horren adierazgarri da, eta bertako Giza Eskubideen Planaren barruan dago kokatuta.
10. Munduan giza eskubideen defendatzaile asko eta asko hiltzen dituztenez, premiazkoa da haien babeserako abian jarritako mekanismoetan zer ez doan ondo hausnartzea. Premiazkoa da horiek nahikoak ez direla eta neurri gehigarriak hartu behar direla hausnartzea. Defendatzaileek era guztietako erronkei aurre egin behar diete: haien lan-testuinguruak, aurrean dituzten botereak, haien baliabide urriak eta jasaten dituzten era guztietako mehatxuak. Horrez gain, ez dago konpromiso politikorik, eraso-kasuetako zigorgabetasunari aurka egiteko eta haien lana zilegi egiteko. Gaur egungo egoera kontuan hartuta, konplexutasun hori tokian tokitik ere ulertu eta artatzen duten politika publikoak zehaztu behar dira. Hau da, modu globalean pentsatu baina tokian-tokian jardun beharra dago.

Egoera horren ondorioz, gure herri eta hirietatik bultzatutako nazioarteko elkartasuna indartu egiten da, udaletan, probintzietan eta eskualdeetan GGEE-en babeserako mekanismoak sortzean eta udalarteko lankidetzarako *ad hoc* fondo iraunkorrak ezartzean. Izan ere, borondate politikoen aldaketen menpe ez daudenez, aurrekontu-sail handirik ez duten udalak integratu daitezke bertan.

³⁸ "Redes de Solidaridad Internacional para derribar el muro Norte-Sur". Rafael Díaz-Salazar. Ediciones Hoac.

³⁹ AECIDen definizioa.

Azken hausnarketa

Tokiko gobernuek funtsezko eginkizuna dute giza eskubideen sustapenean eta babesean. Gobernu horiek zenbait modu eta eskumen dituzte, kasuan kasuko estatuko sistema juridiko eta konstituzionalen arabera. Haien eginkizun nagusien artean, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzte, udalerrri bakoitzaren premiak eta giza eskubideen tokiko betearazpenaren inguruko lehentasunak estaltzeko, herritarrak sentsibilizatzeko, partaidetza sustatzeko eta bilbe soziala indartzeko.

Giza eskubideak sustatzeko eta babesteko funtsezko erantzukizuna gobernu nazionalen eskumenekoa bada ere, oinarrizko zeregina da tokiko zerbitzu publikoen esparruan giza eskubideen kultura sustatzea, errespetua bultzatzeko eta testuinguru sozialean eskubide horiek egia bihurtzeko. Horretarako, giza eskubideen arloko hezkuntza eta funtzionario publikoen sentsibilizazioa zein trebakuntza oso garrantzitsuak dira tokiko gobernuen nahiz gobernu nazionalaren eremuan.

Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluak 2015ean tokiko gobernuek giza eskubideen sustapenean eta babesean duten zereginari buruz egindako txostenean nabarmentzen du tokiko gobernuek giza eskubideak babesteko, sustatzeko eta errespetatzeko betebeharren inguruan duten erantzukizun partekatu eta osagarria.

Hiri handiek euren politika publikoetan giza eskubideen ikuspegiak garatzeko joera dute. Nazio Batuek kezka hori eduki berri dute, eta, 2012. urteaz geroztik, gai hori landu dute. Azkenean, 2015eko abuztuan, Giza Eskubideen Kontseiluak txostena egin zuen tokiko gobernuak giza eskubideen sustapenean eta babesean daukan zereginari buruz. Horretarako, aurretiaz egindako ikerketan oinarritu zen, eta, bertan, 22 estatuk, giza eskubideen arloko 20 instituzio nazionales, nazioarteko 10 GKEk eta nazioarteko 3 erakundek parte hartu zuten. Bertan, hain zuzen ere, tokiko gobernuek giza eskubideak babesteko, sustatzeko eta errespetatzeko betebeharren inguruan duten erantzukizun partekatu eta osagarria azpimarratzen zen.

Espainiako Konstituzioaren 10. artikuluan adierazten denez, gure udal-politika guztien funtsezko oinarria giza duintasuna eta berezko eskubideak izan behar dira. Egunez egun, giza eskubideen defentsa eta sustapena zuzenbide, genero eta interseksionalitate arloko zeharkako ikuspegiak eskaintzen dituzten egituren, zerbitzuen, politiken eta programen bidez bultzatzen badira, gure hiri, herri eta eskualdeetako kalitate demokratiko eta sozialak hobera egingo du, eta, horrela, mundu hobea eratu ahal izango dugu. Arlo horretan, udalek erantzukizun handia eta jarduketarako gaitasun handia dituzte, herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak dira-eta.

Konpromiso hori geure egin behar dugu denok, baita instituzio guztiek ere, euren eskumenen esparruan. Eleanor Rooseveltek esan zuen bezala, giza eskubideak halaxe gauzatuko dira benetan: "etxetik hurbil dauden leku txikietan. Leku horiek hain hurbilak eta txikiak direnez, ez dira mapamundian ikusten. Hala ere, pertsona bakoitzaren mundua eratzen dute: bizileku duten auzoa, ikastoki duten eskola edo unibertsitatea, lantoki duten lantegia edo bulegoa.

*Aholkularien oharra: honako hauexekin hitz egin dugu telefonoz: Aida Guillén Lanzarote, Ajuntament de Barcelonako Serveis de Drets de Ciutadaniako zuzendaria; eta Antoni Royo, Drets Humans i Espais de concertació Fons Català de Cooperació al Desenvolupamenteko arduraduna eta Ciutats Defensores dels Drets Humans Programako koordinatzailea. Horrez gain, zuzeneko bilera ere egin dugu Mauricio Valienterekin. Izan ere, Más Madrideko hirugarren alkateordea eta IUko ordezkaria da Mundubatek kudeatutako Giza Eskubideen Defendatzaileen Aldi Baterako Harrerarako Programako ICAMen.



**Brigadas
Internacionales
de Paz**

Mundubat



Herri Babesarea

Giza eskubideen defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea
Red vasca municipal de protección
a defensores/as de derechos humanos